



BIRTO ENPRESA

Birto enpresan, igeriketarako material birziklatua ekoizten dugu itsasotik bildutako plastikoekin:

- Betaurrekoak
- Bainu-txanoak
- Igeriketako tabla
- Umeentzako flotagailuak produzitzen ditugu.

Itsasoko zaborra, **MATER** itsasontziko lagunek ekartzen digute. Hau, atunontzi handi bat da, askotan itsasora ateratzen dira plastikoak biltzera baina horretaz gain hainbat ekintza ere egiten dituzte, esaterako: bisitak ontzi museora, hitzaldiak, tailer didaktikoak itsasoko zaborrekin... **MATER**-ek nahiko zabor ekartzen ez badigu, gure enpresa Tolosan dagoenez, Tolosako Udalarekin hitz egingo dugu. Tolosaldeako hondakinak biltzen dituzten kamioiak plastikoa ekar diezaguten gure ondasunak ekoizteko. Azkenik, supermerkatu, eskola... kanpoetan zabor ontziak jarriko ditugu, bertan plastikoak bota, hauek guk bildu eta gure materiala produzitzeko.

Produzitu nahi ditugun produktuak kantitate handietan kiroldegiei, txiki parkei... salduko dizkiegu, baina igeriketa egiten duen orok erosteko aukera izango du gure Birto dendan, Tolosan kokatuta egongo dena. Makinak egongo diren enpresa, hau da, materiala ekoiztiko den enpresa ere Tolosan kokatuta egongo da, bertan egongo dira ofizina eta almazena ere.

Gure konpetentzia igeriketarako produktuak egiten dituen enpresak izango dira, esaterako, marka famatuak eta horiek saltzen dituzten komertzial handiak, Decathlon adibidez. Nahiz eta beraiek bezero asko izan, uste dugu guk ere asko salduko dugula, kutsadura murrizteko saiakera egingo baitugu.

Gure helburua, **Garapen jasangarriko helburu** hauek betetzea da, saltzeko zein produzitzeko unean, garrantzitsua baita gure planetarekiko errespetua edukitzea:



Helburu honek **gehiago eta hobea gutxiagorekin** deritzo. Itsasoko plastikoa bildu eta birziklatu dugunez, ez dugu plastiko berria erabiliko, ondorioz kontsumo eta ekoizpen arduratsua bultzatuko dugu.



Klima-aldaketaketaren etorkizuna ozeano jokabidearen araberakoa izango da. Bertako ura azidotu eta berotu egin da, ur beroko guneen presentzia handiagotuz. Horregatik garrantzitsua izango da plastiko hauek biltzea eta ozeanoak babestea.



Gizakiarentzat bizileku egoki bat izatea posible egiten duten faktore garrantzitsuenetako bat itsasoa da, bertatik edateko ura, janariaren zati handia, aireko oxigenoa ematen baitizkigu. Horregatik, gure enpresan itsasoa zaintzen dugu plastikoa birziklatzen dugunez eta **itsaspeko bizitza** zaintzen dugu, 14. helburu hau betez.